

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa. Onestea hauteskunde gastuengatik dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkari izan lortu eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei

Aginte publikoek, hauteskunde legerietan jasotakoaren ildotik, bi helburu bete nahi dituzte hauteskunde gastuen finantzaketa publikoaren bidez: batetik, partaidetza politikoa bultzatu nahi dute, eta, bestetik, hautesleek alderdi, federazio, koalizio eta elkarteetan jartzen duten konfiantzari laguntza eman nahi diote. Hiru urrats desberdinetan dago arauturik: lehenengoa hauteskundeak egin baino lehen emango diren aurrerakinetan gauzatzen da. Horretarako, alderdi politiko, hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteek maila bereko aurreko hauteskundeetan lortutako emaitzak hartuko dira oinarritzat. Bigarren urratsean, alderdi, federazio, koalizio eta elkarteek dirulaguntzen aurrerakinak jaso ditzakete aribideko hauteskunde prozesuan lortutako emaitzengatik. Azkeneko urratsean, berriz, emandako dirulaguntzen likidazioa egingo da.

Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeei buruzkoak, 11. artikuluan ezartzen du hauteskunde gastuak dirulaguntzen bidez finantzatzeko direla, kasuan kasuko lurralde historikoen aurrekontuen kontura. Dirulaguntza bi arau hauen arabera finkatuko da: 1) batzarkide hautetsi bakoitzeko, Eusko Legebiltzarrerako egin diren azken hauteskundeetan legebiltzarkide bakoitzeko eman zen dirulaguntzaren ehuneko 40; eta 2) hautagai zerrendak lortutako boto bakoitzeko, Estatuaren Administrazioak udal hauteskundeetarako zehaztu duen kopuru berbera, baldin eta gutxienez hartako kide bat batzarkide hautaturik gertatu bada Arabako Lurralde Historikoan, dagokion barrutian.

Nahiz eta martxoaren 27ko 1/1987 Legeak hauteskunde gastuengatik dirulaguntza aurrerakinak emateko aukera ez jaso, Arabako Foru Aldundiak aurreko hauteskunde prozesuetan aurrerakinak ematea arautu zuen, gehienez ere aurreko prozesuan jasotako dirulaguntzaren ehuneko 30 egiten zutenak, erreferentziatzen hartuta Hauteskundearen araubide orokorraren Lege Organikoaren 127.bis artikulua eta 5/1990 Legearen, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen, 144 artikulua, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin adostutako irizpideari jarraituta. Ildo horri jarraituz, oraingoan ere, 2023ko Batzar Nagusietarako hauteskunde gastuen aurrerakinak arautu behar dira.

Martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 11. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, eta eskualdeko hauteskunde batzordeek Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskunde prozesuaren behin betiko emaitzei buruz emandako egiaztapenen arabera, Arabako Foru Aldundiak jarraian datorren taulan ageri diren alderdiei eta koalizioari taulan zehaztutako dirulaguntzak eman zizkien. Gainera, taula horretan alderdi eta hauteskunde koalizio horiek aurten egingo den hauteskunde prozesuan jaso dezaketen aurrerakinaren zenbatekoa zein izango den ere ageri da, Hauteskundearen araubide orokorraren Lege Organikoak 127.bis artikuluan eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen Legeak 144. artikuluan ezarritako irizpide berdintsuak aplikatuz:

ALDERDI POLITIKO/HAUTESKUNDE KOALIZIOA	2019AN JASOTAKO DIRULAGUNTZA	CIF	EHUNEKO 30EKO AURRERAKINA 2023AN
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	112.943,36 €	G48103956/10006867	33.883,01 €
Euskal Herria Bildu	135.119,69 €	G71206700/10006933	40.535,91 €
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra PSE-EE- Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra PSE-EE (PSOE)	122.436,52 €	G28477727/10006833	36.730,96 €
Elkarrekin Podemos	49.758,04 €	V01577014/10008459	14.927,41 €
Alderdi Popularra -Partido Popular (PP)	98.178,50 €	G28570927/10006835	29.453,55 €
Guztira	518.436,11 €		155.530,84 €

Aurrekoaren arabera xedatzen da hau; horrek ez du eragozten hauteskunde batzordeak kasu bakoitzean bidezkoa dena erabakitzea, aurkezten diren aurrerakin eskaerak aztertu eta gero.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 3.5 artikuluan jasotako aginduarekin bat etorriz, ekimen honek genero ikuspegia barneratzen du, desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorrekarekin.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunderi buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, foru aldundiak hauteskunde gastuengatik dirulaguntza aurrerakinak emango dizkie Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkaritza lortu zuten alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei, baldin eta 2023ko maiatzaren 28an egingo diren batzar nagusietarako hauteskundeetara aurkezten badira eta foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorriz eskaera egiten badute.

Bigarrena. Aurrerakinaren zenbatekoak ezingo du gainditu Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan, 2019ko maiatzaren 26koetan, alderdi politiko edo hauteskunde federazio, koalizio edo elkarte berak jaso zuen dirulaguntzaren ehuneko 30.

Hirugarrena. Aurrerakinak hauteskunderen deialdia egin ondorengo hogeita batgarren eta hogeita hirugarren egunen artean eskatu ahal izango dira, hau da, aurtengo apirilaren 25etik 27ra bitartean, lurralde historikoko hauteskunde batzordean. Eskaera hauteskunde-administratzaileek egin behar dute.

Laugarrena. Deia egin eta hogeita bederatzigarren egunetik aurrera, 2023ko maiatzaren 3tik aurrera alegia, hauteskunde-administratzaileen eskura jarriko dira aurrerakinak.

Bosgarrena. Hauteskunderen ondoren aurrerakinak itzuliko dira, alderdi politikoei edo hauteskunde federazio, koalizio edo elkarteei azkenean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoan.

Seigarrena. Aurreko zehaztasunak betetzen dituzten alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteek Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetarako aurrerakin gisa jaso dezaketen zenbatekoa, gehienez, 155.530,84 euro da, honela banatuta:

ALDERDI POLITIKOA/HAUTESKUNDE KOALIZIOA	BP	AURRERAKINAREN ZENBATEKOA
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	G48103956/10006867	33.883,01 €
Euskal Herria Bildu	G71206700/10006933	40.535,91 €
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra PSE-EE Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra PSE-EE (PSOE)	G28477727/10006833	36.730,96 €
Elkarrekin Podemos	V01577014/10008459	14.927,41 €
Alderdi Popularra-Partido Popular (PP)	G28570927/10006835	29.453,55 €
Guztira		155.530,84 €

Zazpigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurreko xedapenean zerrendatutako talde politikoei xedapen horretan adierazitako zenbatekoak esleituko dizkie, gehieneko zenbateko osoa 155.530,84 eurokoa izanik, Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako aurrekontua gauzatzeko aurreikusitako Batzar Nagusietarako hauteskundearen dirulaguntzak/Subenciones Elecciones Juntas Generales 02100. G/920021/48100061 aurrekontu partidaren kargura, jasotakoaren arabera. Diru hori alderdi politikoen eta koalizioen esku jarriko da 2023ko maiatzaren 3tik aurrera, horretarako ezarritako guztiaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak baimena eman eta Arau Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuak txostena egin ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN